



METEOROLOGIA TXOSTENA – 2018KO OTSAILA

Otsaila kantauri isurialdean erabat hezea izan zen, Arabako hegoaldean berriz, ohikoa. Batez besteko tenperatura, berriz, oso hotza izan zen EAE osoan. Beraz, negu hasierako joera hezearekin jarraitu genuen. Muturreko egoerei loturiko abisu eta alerta ugari igorri ziren, gehienak elurragatik. Aipagarria da hilaren 19ko eta 20ko prezipitazio iraunkorra, ibai batzuek gainezka egin baitzuten, eta otsaileko azken egunean kota baxuetan egindako elurtea.

Prezipitazioa

Prezipitazioari dagokionez, otsaila erabat hezea izan zen kantauri isurialdean eta Araba hegoaldean, berriz, ohikoa, 1980-2010 denboraldia kontuan hartuz. Kantauri isurialdean eta Gorbeia inguruan urteko sasoi honetan ohikoa den prezipitazioaren bikoitza egin zuen. Dena den, lehen aipatutako erreferentzia denboralditik at otsail hezeagoak badaude, adibidez 2015ekoa eta 2016koa.

Prezipitazio kantitate handienak, 400 mm-tik gorakoak, Gipuzkoa ekialdean neurtu ziren, Nafarroako mugan (Eskas 545.7 mm, Berastegi 471.9 mm, Ameraun 455.1 mm, Añarbe 433.1 mm). Hortik gertu, Gipuzkoa barnealdean pilatutakoa ere aipagarria da (Bidania 401.7 mm, Ibai Eder 372.1 mm). Bizkaian Enkarterrietan eta Durangaldean neurtu ziren prezipitazio kantitatetik handienak (Cerroja 312.5 mm, Iurreta 310.4 mm, Mañaria 303.6 mm). Araba hegoaldean, klimatologia erabat ezberdinarekin, pilatutakoa ohiko balioetatik hurbil geratu zen (Párganos 22.6 mm, Moreda 31.4 mm, Zambrana 34.4 mm, Kanpezu 46.9 mm).

Kantauri isurialdean prezipitazio-egun (prezipitazio-eguna 1 mm edo gehiago pilatzen den eguna da) ugari izan ziren, 20 inguru, ia espero zitekeenaren bikoitza. Araba erdialdean ere ohikoa dena baino prezipitazio-egun gehiago izan ziren, 16. Arabako Errioxan ohiko prezipitazio-egun kopurua izan genuen, 4 inguru. 10 egunetan izan zen pilatutako prezipitazioa oso ugaria eta 3 egunetan 60 mm baino gehiago pilatu ziren.

Horrez gain, aipatu behar da, hilaren 1etik 13ra egunero egin zuela elurra 1000 metrotik behera, hilaren 11an izan ezik. Oro har, kota ertainetan egin zuen elurra, baina hilaren 6tik 8ra 100-300 m-ra kokatu zen. Elurterik handiena, ordea, ez zen egun horietan gertatu, hilaren 28an baizik. Egun hartan EAE osoan egin zuen elurra eta ugari gainera, batez ere mendebaldean; hiru hiriburuetan egin zuen elurra eta lodierak 6-11 cm artekoak izan ziren.

Iparraldeko adbekzio indartsuaren ondorioz, hilabetearen hasieran eguraldi erabat hezea eta hotza izan genuen; hala ere, kontraste handiak izan ziren bi isurialdeen artean. Hilaren 1etik 3ra bitartean eta 5ean ipar isurialdeko zenbait lekutan 40-50 mm pilatu ziren egunero, aldiz Araba hegoaldean ia ez zuen prezipitaziorik egin. Horrez gain, ezegonkortasun larriak eragin zituzten eta



zaparrada ertainak bota zituen, tarteka handiak, adibidez Bilbon bota zuena (hilaren 1ean Deuston 8.6 mm/10 minutuan). Urte sasoi horretarako erabat ez-ohikoa den balioa izan zen hori, sare osoan neguan izandako bigarren altuena.

Hilaren 11an ipar-mendebaldeko adbekzio hotza izan genuen eta ekialdeko kostaldean eta Gipuzkoako ipar-ekialdeko mendi inguruetan prezipitazioa oso ugaria izan zen, estazio batean 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 64.7 mm, Oiartzun 49.7 mm, Añarbe 48.1 mm, Miramon 32.5 mm).

Hilaren 15ean eta 16an atertzera egin zuen, baina 17tik 21era bitartean berriro ere prezipitazioa etengabe egin zuen. Bost egun horietan Gipuzkoa ekialdeko mendi inguruetan 200 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 279.9 mm, Berastegi 230.4 mm, Ameraun 220.1 mm). Hilaren 19a (Eskas 108.1 mm, Berastegi 104.8 mm, Ameraun 91.8 mm, Bidania 79.1 mm, Añarbe 78.2 mm, Belauntza 71.1 mm, Araxes 63.7 mm, Zizurkil 62 mm) eta 20a (Eskas 94.6 mm, Berastegi 68.1 mm, Ameraun 63.2 mm) izan ziren egunik euritsuenak, egun horietan iparraldeko adbekzioa nabarmenagoa izan zelako eta fronte bero bat geldikor egon zelako gure kostaldean.

Pilatutako prezipitazioaren eta elurraren urtzearen ondorioz arroen erantzun hidrologikoa berehalakoa izan zen. Egun horietan hainbat neurketa-estaziotan maila horira iritsi ziren, gainezka egiteko arriskuarekin, batez ere Gipuzkoa ekialdeko arroetan: Urolan, Orian eta Urumean. Izan ere, Urumeak gainezka egin zuen Hernanin eta Oriak Andoainen. Araban, Baia ibaia hazi egin zen eta gainezka egiterakoan Kuartango eta Andagoia arteko errepidea moztuta geratu zen, baita Pobesen ere. Omecillo ibaia, Espejo parean ere hazita zihoan eta zaintza berezia egin zitzaion, baina azkenean ez zuen gainezka egin.

Taula 1: Azken urteetan otsailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	217.8	70.3	265.2	267.3	92.6	301.3	84.1	87.9	42.7	65.9
Lasarte	302.0	86.4	305.4	351.2	169.6	268.4	63.3	162.3	71.3	132.8
Arrasate	317.9	126.1	378.1	463.1	147.0	450.2	112.7	176.3	70.7	121.4
Abetxuko	96.5	46.0	161.5	187.2	85.5	209.1	45.3	74.9	34.1	52.0
Párganos	22.6	29.7	124.8	87.7	47.1	90.4	34.6	47.0	13.1	16.5

Temperatura

Otsailean batez besteko temperatura oso hotza izan zen. Kostaldean 6-7 °C artekoa eta Arabako Lautadan 4 °C-tik azpikoa, hau da, EAE osoa kontuan hartuz ohikoa dena baino 2-3 °C baxuagoa. Kantauri isurialdean anomalia



Mediterraneo isurialdean baino nabarmenagoa izan zen. Mende honetan batezbesteko horiek hotzenetarikoak dira, 2012koa eta 2005ekoaren atzetik.

Logikoki, egun hotzak nagusitu ziren. Egun beroak hilabetearen erdialdean pilatu ziren, otsailean hego-haizea ibili zen aldi bakarrean, hain zuzen. Egun horietan neurtu ziren tenperatura maximo altuenak: hilaren 15ean kostaldean 20 °C-tik gorako maximoak izan genituen eta hurrengo egunean 23 °C ingurukoak kantauriko bailaretan (Alegia 23.2 °C, Ibai Eder 23.2 °C, Zizurkil 22.8 °C).

Izotz-egunen kopurua, berriz, batezbesteko klimatologikoa baino handiagoa izan zen, batez ere Bilboko erreferentziazko estazioan (6 izotz-egun izan ziren eta batezbestekoa 2.1 da). Denboraldi batzuetan izotza ia edonon egin zuen, adibidez: hilaren 6tik 9ra, 12tik 13ra eta 22tik 28ra.

Azpitarragarria da azken denboraldia, izan ere negu osoan ipar-ekialdeko adbekzio hotz bakarra egun horietan izan genuen. Hilabetearen azken herenean Errusia-Siberian jatorria zuen aire-masa oso hotz eta lehor bat sartu zen gurean, eta bi hotzaldi edo pultsazio izan genituen. Tenperatura hotzenak 27ko eta 28ko goizaldetan neurtu ziren: orduan EAE osoan egin zuen. Hilaren 27an EAEko hainbat mendi ingurutan izotz gogorra egin zuen (Iturrieta -10.3 °C, Kapildui y Herrera -10.1 °C, Oiz -9.8 °C, Eskas -8.4 °C, Orduña -8.2 °C), barnealdeko bailaretan eta kubetetan handi-gogorra (Salvatierra -10 °C, Pagoeta -9.7 °C, Trebiño -9.6 °C, Berastegi -8.2 °C, Zegama -6.9 °C, Arrasate -6.8 °C, Párganos -6.7 °C) eta kostaldean txiki-handia (Miramon -5.2 °C, Zarautz -3.8 °C, Matxitxako -3.2 °C, Deusto -1.5 °C). Horrez gain, 27an batez besteko tenperatura ia leku guztietan 0 °C-ren azpitik geratu zen.

Taula 2: Otsailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	6.9	12.0	10.9	8.2	11.3	9.1	6.9	11.3	9.5	8.7
Lasarte	6.1	10.5	9.4	6.9	9.9	7.6	4.8	10.1	8.4	8.4
Arrasate	4.0	8.6	7.0	4.3	7.4	5.0	3.0	7.8	7.0	6.7
Abetxuko	3.5	7.0	5.9	3.1	6.4	4.4	2.5	5.8	4.9	5.2
Párganos	3.8	7.5	6.7	3.9	6.2	4.8	3.5	6.7	4.4	5.4

Haizea

Hilaren 12ra arte ipar-osagaia izan zen nagusi. Otsailaren erdi aldera, hego-haizea ibili zen egun batzuetan, baina gero ipar-osagaira egin zuen berriro. Hilaren 21etik aurrera ipar-ekialdeko haizea nagusitu zen.

Otsaila ez zen oso haizetsua izan, baina hilabetearen lehenengo bi herenetan eta azkeneko egunean haize-bolada oso gogor asko neurtu ziren.



Haize-boladek 100 km/h-ko abiadura pare bat egunetan baino ez zuten gainditu eta oso puntualki.

Lehenengo aldiz hilaren 13an neurtu ziren 100 km/h-tik gorako boladak, Mantxako Kanala zeharkatu zuen bigarren mailako depresio bati loturiko hego/hego-mendebaldeko haizearekin (Matxitxako 108.4 km/h, Orduña 105.1 km/h, Arboleda 101.9 km/h).

Bigarren aldiz hilaren 28an neurtu ziren, Penintsularen mendebaldean zegoen depresio indartsu batek bidalitako hego-ekialdeko haize-boladekin, batez ere Arabako Mendialdean eta Arabako Lautadaren ekialdean (Oiz 100.4 km/h, Ilarduia 99.7 km/h, Salvatierra 79.6 km/h, Alegría 78.1 km/h, Párganos 74.2 km/h).

Bukatzeko, hilaren 6an Paganos estazioan neurtutako 93.3 km/h-ko haize-bolada ere azpimarragarria da, egun hartako ufadarik handiena, iparraldeko fluxuaren eta Toloñoko mendilerroan izaten den jauzi hidraulikoaren eraginez.

Analisisa

Otsailaren 1etik 3ra

Urtarrilaren azken egunak eguzkitsuak eta lasaiak izan baziren ere, otsailaren 1ean eguraldia goitik behera aldatu zen. Egun horretan laugarren koadranteko haizeak bultzatutako fronte hotz aktibo batek Kantauri Itsaso osoa zeharkatu zuen. 500 hPa-eko mailan aska bat zegoen, barnean -30 °C-ko aire masarekin eta 850 hPa-eko mailan tenperatura -5 °C-koa zen. Aska hegoaldera luzatu zenean iparraldeko fluxuaren korridore moduko bat sortu zen. Hilaren 1ean prezipitazioa ugari egin zuen, trumoi-ekaitzak izan ziren, txingorra bota zuen eta elur-kota 500 m ingurura jaitsi zen, hilaren 2an 300 m-ra. Egoerak jarraipena izan zuen 3ra arte; orduan beste fronte bat iritsi zen eta berriro ere prezipitazioa ugaria izan zen, baina elur-kota gorago egon zen.

Otsailaren 4tik 8ra

Hilaren 4an ere eguraldi euritsuarekin jarraitu genuen. Erdi-mailako geruzan eta goi-geruzan aire masa hotza sartu zen. Horren ondorioz, 500 hPa-eko mailan zegoen aska sakondu eta zirkulazio orokorrekin askatu zen. Askatutako depresio horren isla bezala, lurrazalean depresio bat sortu zen Iberiar Penintsularen hego-ekialdean. Guzti haren ondorioz, Kantauri Itsasoan lehen koadranteko haizea nagusitu zen. Horrez gain, hilaren 6tik 8ra bitartean 850 hPa-eko mailan airearen tenperatura -7 °C ingurura jaitsi zen eta egun horietan elurra egin zuen 200 metrotik gora; horrez gain, kantauri isurialdean txingorra bota zuen.



Otsailaren 9tik 12ra

Hilaren 9an aska ekialdera mugitu zen eta lehen aipaturiko aire masa hotzaren sarrera eten egin zen. Hilaren 8an, azken orduetan, eta hilaren 9an, goizaldean ostarte handiak zabaldu ziren; leku askotan oraindik elurpean zeuden, beraz horrek tenperatura oso bizkor jaitea erraztu zuen, azpimarratzekoa Iturrietan neurtu zen balioa: $-13.8\text{ }^{\circ}\text{C}$. Hilaren 9an zirkulazio zonal ahula ibili zen eta fronte hotz bat bultzatu zuen gurera. Prezipitazio ertaina egin zuen, ugariago iparraldean eta egunaren bigarren partean. Mendebaldetik ziri txiki bat sartu zen gurera eta ordu gutxi batzuetan eguraldiak hobera egin zuen. Hilaren 10ean, ordea, azken orduetan ipar-mendebaldetik fronte bero bat etorri zen eta berriro ere euritara jo zuen. Gainera, tenperaturak nabarmen egin zuen gora eta hilaren 11n, egunaren lehenengo partean 850 hPa-eko mailan tenperatura $6\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurukoa izan zen. Gorakada hark, alabaina, ez zuen jarraipenik izan eta beste fronte hotz baten ondorioz tenperaturak behera egin zuen. Hilaren 12an, 850 hPa-eko mailan, airearen tenperatura $-5\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurura jaitsi zen. Egunaren lehenengo partean elurra egin zuen 500 metrotik gora. Hilaren 12an, arratsalde-gau partean, eta hilaren 13 atertu egin zuen; izotza egin zuen eta Iturrietan tenperatura $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurura jaitsi zen.

Otsailaren 13tik 14ra

Hilaren 13an eta 14an mendebal/hego-mendebaldeko fluxu zonala berrezarri zen Kantauri Itsasoan. Fronte bero batzuk lurraldea ukitu zuten eta prezipitazioa egin zuen, orokorrean txikia, eta tenperatura nabarmen igo zen.

Otsailaren 15etik 16ra

Hilaren 15ean Penintsularen hegoaldetik zetorren gailur txiki bat iparralderaino zabaldu zen eta 850 hPa-eko mailan tenperatura $7\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingururaino igo zen. Lurrazalean Britainian antizikloi bat sortu zen (erdigunean 1025 eta 1029 hPa arteko presioa zuena) eta hilaren 16an ekialdera mugitu zen. Egun hartan zerua hodei gutxirekin egon zen eta hego-haizea ibili zen, eta otsaileko tenperaturarik altuenak neurtu ziren, kantauri isurialdeko barnealdeko zenbait tokitan $23\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurukoak.

Otsailaren 17tik 20ra

Egun haietan lurrazalean Atlantikoko antizikloia gailendu zen eta gurean itsasaldeko haizea ibili zen. Hodeiak ugariak izan ziren eta tenperatura aurreko egunetan baino baxuagoa izan zen. Fronte batzuk lurraldea zeharkatu zuten eta euria erruz egin zuen; Gipuzkoa ekialdeko zenbait lekutan 72 ordutan 150 mm baino gehiago pilatu ziren.

Otsailaren 21etik 27ra

Hilaren 22tik aurrera antizikloia Europa iparraldera mugitu zen eta Mediterraneoan depresio bat sortu zen. Egoera sinoptiko hark Errusiako Siberiatik aire masa lehor eta oso hotz bat gurera iristea erraztu zuen. Egun haietan barnealde osoan izotza egin zuen; hilaren 27an Iturrieta eta Salvatierra estazioetan tenperatura $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingururaino jaitsi zen.



Otsailaren 28a

Goizaldean Iberiar Penintsularen iparralde osoan elurra lodi egin zuen, erabat desberdinak ziren bi aire-masen arteko elkarrekintzaren ondorioz. Alde batetik, lehen aipatutako Errusiako Siberiako aire masa eta, bestetik, jatorri subtropikala zuen aire masa bero eta oso hezea. Sare osoan termometroa 0 °C-ren azpitik zegoela, Iberiar Penintsularen barnealdetik fronte bero bat iritsi zitzaigun eta prezipitazio iraunkorra egin zuen gutxi gorabehera goiz erdira arte, prezipitazioa elur moduan egin zuen txoko guztietan, elur-kota itsasmailan baitzegoen. Elurra ugaria izan zen, 6-10 cm-ko lodierak pilatu ziren hiriburuetan. Eguerditik aurrera hego-ekialdeko haizea indartu egin zen eta bi aire masak nahastu egin ziren; orduan, pixkanaka prezipitazioa euri izatera pasa zen eta tenperatura igotzen hasi zen.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko otsaileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max. l/m ²	Euri- egunak.
Deusto	6.9	9.8	19.9	4.2	-2.9	2	217.8	36.1	19
Lasarte	6.1	9.2	19.3	3.1	-4.9	5	302.0	54.4	20
Arrasate	4.0	7.5	18.6	0.9	-6.8	16	317.9	41.4	20
Abetxuko	3.5	7.3	17.0	0.2	-7.1	14	96.5	18.5	17
Párganos	3.8	7.0	16.1	0.8	-6.7	14	22.6	10.7	7



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Temperatura minimoa


 Batez besteko temperatura

 Temperatura maximoa




Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Otsailean 39 abisu hori igorri ziren, 4 prezipitazio iraunkorreatatik, 13 elurragatik, 1 haizeagatik haizeguneetan, 9 izotzagatik, 6 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 6 itsasaldeko arriskuagatik. Horrez gain, 4 alerta laranja igorri ziren elurragatik.

- Hilaren 1ean iparraldetik etorritako aire-masa hotz bat zabaldu zen erdi-mailako geruzan. Goizean iso-0a agertu zen Kantauri Itsasoaren ekialdean eta gero tenperatura are hotzagoa izan zen, 850 hPa-eko mailan -4 edo -5 °C ingurukoa. Egunaren lehenengo partean kantauri isurialdean prezipitazioa ugaria izan zen, baina hala ere, eguerdira arte elur-kota ez zen jaitsi. Eguerditik aurrera elur-kota noizbehinka 500-600 m-ra jaitsi zen eta arratsaldean ere hala jarraitu zuen. Ilunabarrean, ordean, gehiago jaitsi zen. Araba hegoaldean prezipitazioa, oro har, noizbehinkakoa eta txikia izan zen, baina Arabako Lautadaren iparraldean eta isurialdeen arteko banalerroan prezipitazioaren intentsitatea handiagoa izan zen. Egunaren amaieran Bizkaian eta Araban atertzera egin zuen.

Osteguna, hilak 1: Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 18etara ordu lokala. Elur-kota 500-700 m inguruan kokatuko da. Alerta Laranja elurragatik barnealdean 18etatik 24etara ordu lokala. Elur-kota 400-600 m inguruan kokatuko da; baliteke ekaitz guneetan beherago egotea.

- Hilaren 1ean olatuen altuera adierazgarria 3.5-4 metro ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 metroko olatuak altxatu zituen, 14 segundoko periodoarekin. Itsasgora 17:29an (ordu lokala) izan zen, 4.59 m-ko altuerarekin. Gainezka egiteko indizeak: $I=6.2$ m eta $I_{max}=6.7$ m.

Osteguna, hilak 1: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 16etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 2an, goizaldean eta gauean, prezipitazioa ugaria izan zen eta elurra etengabe pilatu zen. Prezipitazioa irregularki banatu zen. Kantauri isurialdean zaparradak bota zituen tarteka, noizbehinka txingorra ere bai. Goi-geruzako aire-hotzak sortutako ezegonkortasunaren ondorioz, elur-kota maila ertainetan egon zen, tarteka maila baxuetan, batez ere ekialdean.

Ostirala, hilak 2: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Elur-kota 200-400 m inguruan kokatuko da eta egunaren bigarren partean 400-600 m ingurura igoko da; baliteke ekaitz eremuetan eta prezipitazioaren intentsitatea handia den lekuetan beherago egotea.

- Olatuen altuera adierazgarria 3.5 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2.5-3 metroko olatuak altxatu zituen, 14 segundoko periodoarekin. Itsasgorak 05:46an (ordu lokala), 4.89 m-ko altuerarekin (gainezka egiteko indizeak: $I=6.5$ m eta $I_{max}=6.9$ m) eta 18:12an (ordu lokala) 4.58 m-ko altuerarekin (gainezka egiteko indizeak: $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.2$ m) izan ziren.



Ostirala, hilak 2: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 09etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 04etatik 08etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 17etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 3an, goizean goiz, aska bat ekialdera mugitu zen, ondorioz goigeruzako tenperaturak gora egin zuen eta ezegonkortasuna txikitu egin zen. Aire-hotza desagertu eta 850 hPa-eko tenperatura 0 °C-raino igo zen. Egunaren lehenengo partean prezipitazio txikia egin zuen, kantauri isurialdean noizbehinka ertaina. Bigarrenean, berriz, prezipitazio txiki-ertaina eta iraunkorra egin zuen eta kostaldean txingorra bota zuen.

Larunbata, hilak 3: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Elur-kota 500-600 m-ra egongo da goizean goiz, 800-1000 m-ra igoko da eguneko erdiko orduetan eta 500-700 m-ra jaitsiko da azken orduetan.

- Olatuen altuera adierazgarria 2-2.5 m ingurukoa izan zen, 12 segundoko periodoarekin. Itsasgora 06:28an (ordu lokala) izan zen, 4.84 m-ko altuerarekin. Gainezka egiteko indizeak: $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.2$ m.

Larunbata, hilak 3: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 06etatik 07etara ordu lokala.

- Hilaren 4an barnealdean elur-kota 600-700 m inguruan kokatu zen, egunaren bigarren partean 700-800 m-ra. Han-hemenka zaparrada txikiak bota zituen noizbehinka; egunaren bigarren partean atertuz joan zen. Elur gutxi egin zuen.

Igandea, hilak 4: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 5ean elur-kota 500-700 m inguruan egon zen, azken orduetan 200-400 m inguruan. Prezipitazio txikia egin zuen, kantauri isurialdean noizbehinka ertaina. Elur-lodieran alde handia izan zen leku batzuetatik besteetara: zenbait lekutan gutxi, eta beste zenbaitetan ugari pilatu zen.

Astelehena, hilak 5: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 6an, goizean prezipitazioa urria izan zen, baina egunaren bigarren partean itsasaldetik sartu ziren zaparradak, batez ere kantauri isurialdean eta ekialdean. Arratsaldea aurrera joan ahala gero eta zaparrada handiagoak bota zituen eta kostaldetik hurbil zeuden lekuetan trumoi-ekaitzak ere izan ziren. Elur-kota 100-300 m inguruan egon zen egun osoan.

Asteartea, hilak 6: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 6an, Paganos estazioan 93.3 km/h-ko ipar-osagaiko haize-bolada bat neurtu zen, egun hartan EAE osoan neurtutako handiena.



- Hilaren 7tik aurrera goi-geruzan beste aska bat askatu eta hegoaldera mugitu zen. Aska horri loturiko itsasaldeko aire-masa polar hotzak eta kontinentalak eragin zigen. Fronte okluditu bat eta ezegonkortasun lerro bat etorri ziren eta prezipitazio txiki-ertaina egin zuen; pilatutakoa, ordea, ez zen aipagarria izan, prezipitazioa noizbehinka eta han-hemenka egin zuelako, ugariago, hori bai, kantauri isurialdean eta mendebaldean. Araban ez zen aparteko kantitaterik pilatu, ipar-mendebaldean izan ezik. Elur-kota 100-300 m-ra egon zen, baina noizbehinka itsasmailan ere egin zuen elurra. Horrez gain, aire hotzagoa sartu zen, eta kantauri isurialdean trumoi-ekaitzak izan ziren eta txingorra bota zuen, batez ere kostaldetik gertu. Arratsaldean, frontea pasa ostean, aterruna bat izan zen eta ostarteak zabaldu ziren. Gauean, depresio bat Frantzia iparraldetik hegoaldera mugitu ahala, itsasaldetik berriro ere hodeiak sartu ziren gurean eta prezipitazio txiki-ertaina egin zuen.

Asteazkena, hilak 7: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 8an, egunaren lehenengo partean, oraindik frontearen hondarren eraginpean, prezipitazio txiki-ertaina egin zuen, batez ere kantauri isurialdean, eta elur-kotak 100-300 m inguruan jarraitu zuen. Bi prezipitazio-lerro sortu ziren goizaldean, bat Bizkaia mendebaldean eta bestea Gipuzkoa mendebaldean; Vitoria-Gasteiz bi lerroen tartean geratu zenez, ez zuen prezipitazio askorik egin. Arratsalde-gau partean atertzera egin zuen, hodeitza saretzen hasi zen eta elur-kota 500-600 m-ra igo zen.

Osteguna, hilak 8: Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia elurragatik barnealdean 10etatik 15etara ordu lokala.

- Hilaren 8ko azken orduetan, eta 9ren hasieran ostarte handiak zabaldu ziren. Elurtearen ondoren izan zen hori, eta tenperatura nabarmen jaitea erraztu zuen. Mendebaldeko kostaldean izan ezik, gainerako toki guztietan bota zuen izotza. Araba ekialdeko lautadetan eta haran hondoetan neurtu ziren baliorik baxuenak; izotz gogorra egin zuen eta Arabako gainerako tokietan handia. Kantauri isurialdeko barnealdeko bailaretan ere izotz handia egin zuen, baina tenperatura nekez jaitsi zen – 4°C-tk behera.

Estazioa	Hilak 8	hh:mm	Hilak 9	hh:mm
Iturrieta	-8.5	23:20	-13.8	4:00
Roitegi	-6.7	23:50	-11.1	4:00
Egino	-5	21:10	-8.7	4:30
Ilarduia	-2.5	23:50	-6.3	5:10
Altube	-2.2	23:50	-5.3	4:00
Sarria	-3.1	23:50	-5.2	3:30
Berastegi	-3.5	23:40	-5	4:30
Ozaeta	-2.2	23:20	-4.9	5:30



Salvatierra	-2.5	23:50	-4.9	4:30
Antoñana	-3.4	23:50	-4.8	5:10
Navarrete	-2	23:50	-4.7	5:00
Kapildui	-4.2	23:50	-4.5	0:10
Pagoeta	-1.8	23:50	-4.3	3:40
Zaldiaran	-3.3	0:00	-4.3	5:40
Etura	-2	23:50	-4.2	4:40
Trebiño	-1.3	23:50	-4.1	5:30
Beluntza	-2.7	23:50	-4	4:30
Jaizkibel	-2	9:10	0.3	0:00
Oiartzun	-0.3	23:50	-1.5	4:10

Osteguna, hilak 8: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik 21etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 9: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik 00etatik 10etara ordu lokala.

- Hilaren 9an Atlantikotik beste aska bat iritsi zen Europara, itsasaldeko aire polarrarekin batera. Frantzia zeharkatu eta eguerditik aurrera saiheska izan zuen eragina gurean. Zenbait fronte-sistemek mendebaldetik ekialdera EAE zeharkatu zuten eta prezipitazio txiki-ertaina egin zuen, sariago eta ugariago kantauri isurialdean, zehazki isurialdeen banalerroko mendi inguruetan, hain zuzen ere; gauean atertzera egin zuen. Egunaren bigarren partean elur-kota jaitsi egin zen eta azken orduetan 400-600 m inguruan kokatu zen.

Hurrengo egunean noizbehinka zaparradak bota zituen, goizean Gipuzkoan, arratsaldean gehienak Bizkaian. Mediterraneo isurialdean prezipitazioa ez zen ugaria izan, Gorbeia inguruan izan ezik. Elurraren maila ezberdina izan zen leku batzuetatik besteetara: Gipuzkoan 300-500 m inguruan egon zen, Bizkaian 600-700 m-ra eta Araban 500-700 m-ra. Eguna aurrera joan ahala elur-kota igo egin zen, arratsalde-gau partean 1000 m-tik gora.

Ostirala, hilak 9: Abisu Horia elurragatik barnealdean 11etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 10: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 11an, ipar-mendebaldeko adbekzio hotza zela eta, kostaldearen ekialdean eta Gipuzkoa ipar-ekialdeko mendietan prezipitazioa oso ugari egin zuen eta zenbait lekutan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 64.7 mm, Oiartzun 49.7 mm, Añarbe 48.1 mm, Miramon 32.5 mm).

Igandea, hilak 11: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian, Gipuzkoan eta iragaitezona 00etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 12an aska handi eta sakon bat Penintsularen iparraldean zabaldu zen eta elur-kotaren beherakada handia izan genuen; 300-500 m-ra kokatu zen. Arratsaldera arte ezegonkortasun lerro batzuei lotutako zaparrada txiki-



ertainak sartzen joan ziren, batez ere kantauri isurialdera eta Gorbeia ingurura.

Astelehena, hilak 12: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 12tik 13ra lurralde osoan izotza egin zuen, kostaldean izan ezik, han gertu ibili ziren arren. Balio baxuenak Arabako Mendien erdialdean neurtu ziren, izotz handia egin zuen.

Estazioa	Hilak 12	hh:mm	Hilak 13	hh:mm
Iturrieta	-6.8	22:30	-9.3	2:50
Roitegi	-6.2	23:50	-8.1	1:20
Antoñana	-3.6	23:50	-5.5	5:10
Navarrete	-3.2	23:50	-5.1	4:10
Trebiño	-3.1	23:50	-5	4:40
Kanpezu	-2.3	23:30	-4.7	4:00
Sarria	-3.6	23:50	-4.5	4:40
Pagoeta	-3.1	23:50	-4.4	2:20
Zaldiaran	-3.5	23:10	-4.1	3:30
Albaina	-2.7	23:50	-4	3:00
Altube	-3.9	23:50	-4	0:00
Orduña	-3.4	22:50	-4	3:40
Párganos	-1.4	23:40	-2.4	4:10
Arrasate	-0.5	23:00	-2.1	3:10
Otxandio	-2.3	23:20	-1.5	2:00
Arteaga	-0.3	23:20	-0.9	2:50
Oiartzun	1	23:50	-0.2	3:00

Astelehena, hilak 12: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 13: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 09etara ordu lokala.

- Hilaren 13an hego/hego-mendebaldeko haize-bolada oso gogorak neurtu ziren, batez ere mendebaldeko mendi inguruetan, Mantxako Kanala zeharkatu zuen depresio baten eraginez. (Matxixako 108.4 km/h, Orduña 105.1 km/h, Arboleda 101.9 km/h).

Asteartea, hilak 13: Abisu Horia haizeagatik mendi inguruetakoa haizeguneetan 06etatik 13etara ordu lokala.

- Hilaren 13an olatuen altuera adierazgarria 3.5 m ingurukoa izan zen (Pasaiako Portuan, 3.34 m 19:00etan ordu lokala). Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m arteko olatuak altxatu zituen, 13-14 s-ko periodoarekin.

Asteartea, hilak 13: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala.



- Hilaren 14an olatuen altuera adierazgarria 3.5 metro ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 metroko olatuak altxatu zituen, 13-14 s-ko periodoarekin.

Asteazkena, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 06etara ordu lokala.

- Hilaren 15ean olatuen altuera adierazgarria 3.5 metrotik gorakoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 metroko olatuak altxatu zituen, 18-19 s-ko periodoarekin. Bigarren itsasgora, 16:52an (ordu lokala), 4.09 m-ko altuerarekin (gainezka egiteko indizeak: $I=5.75$ m eta $I_{max}=6.5$ m) izan zen.

Osteguna, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 18etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 16:30etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 16an olatuen altuera adierazgarria 3.5-4 metro inguruan kokatu zen (Pasaiako Portuan, 3.9 m 09:00etan ordu lokala). Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3.5 metroko olatuak altxatu zituen, 17 s-ko periodoarekin. Itsasgorak 05:03an (ordu lokala), 4.39 m-ko altuerarekin (gainezka egiteko indizeak: $I=6.4$ m eta $I_{max}=6.95$ m) eta 17:22an (ordu lokala) 4.20 m-ko altuerarekin (gainezka egiteko indizeak: $I=6$ m eta $I_{max}=6.5$ m) izan ziren.

Ostirala, hilak 16: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala. - Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 03etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 16:30etatik 18:30etara ordu lokala.

- Hilaren 17an olatuen adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen, 15 s-ko periodoarekin. Itsasgora 05:34an (ordu lokala), 4.48 m-ko altuerarekin (gainezka egiteko indizeak: $I=6$ m eta $I_{max}=6.4$ m)

Larunbata, hilak 17: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 04:30etatik 06:30etara ordu lokala.

- Hilaren 19an iparraldeko adbekzio nabarmena ezarri zen eta prezipitazio iraunkorra egin zuen; fronte bero bat Kantauri Itsasoan geldikor zegoela. Ipar-isurialdeko hainbat tokitan euria oso ugari egin zuen eta Gipuzkoako ekialdean 100 mm baino gehiago pilatu ziren. (Eskas 108.1 mm, Berastegi 104.8 mm, Ameraun 91.8 mm, Bidania 79.1 mm, Añarbe 78.2 mm, Belauntza 71.1 mm, Araxes 63.7 mm, Zizurkil 62 mm). Itsasaldeko fluxuaren eraginez, hilaren 20an ere egoerak berdintsu jarraitu zuen, baina kasu hartan Gipuzkoako barnealdean baino ez ziren maximoak aipagarriak izan, Nafarroako mugan (Eskas 94.6 mm, Berastegi 68.1 mm, Ameraun 63.2 mm).

Egun haietan hainbat aforoko estaziotan maila horia gainditu zen eta ibaiak gainezka egiteko zorian izan ziren, batez ere Gipuzkoa ekialdeko arroetan, hau da, Urolan, Orian eta Urumean. Urumea ibaiak Hernanin egin zuen



gainezka, Oriak, berriz, Andoainen. Araban Baiasek ere gainezka egin zuen eta zenbait lekutan errepidea moztuta egon zen, adibidez Koartango eta Andagoiako errepidea eta Pobes parekoa. Espejo parean Omecillo errekarari ere zaintza berezia egin zitzaion, baina ez zuen gainezka egin.

Astelehena, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik kantauri isurialdean 00etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 21ean ipar-ekialdeko adbekzio hotza ezarri zen eta luze iraun zuen gurean. Egunaren lehenengo partean zaparrada txiki-ertainak bota zituen, batez ere isurialdeen banalerroko mendi inguruetan eta Gipuzkoako barnealdean; goizaldean prezipitazioa iraunkorra izan zen, goizean noizbehinkakoa. Elur-kota 800 m inguruan egon zen, arratsaldean jaitsi eta 500-600 m-ra kokatu zen, baina ordurako atertu egin zuen.

Asteazkena, hilak 21: Abisu Horia elurragatik barnealdean 06etatik 15etara ordu lokala.

- Hilaren 22tik 28ra ipar-ekialdeko adbekzio hotz indartsu baten eraginpean egon ginen. Errusiako Siberia inguruan jatorria zuen aire-masa oso hotz baten hegoaldeko muturrak gure lurraldea ukitu zuen bi alditan. Hilaren 27ko eta 28ko goizaldeetan neurtu ziren tenperaturarik baxuenak eta EAE osoan egin zuen izotza. Lehenengo egunean EAE osoko mendi inguruetan izotz gogorra egin zuen, barnealdeko bailaretan eta kubetetan handia eta kostaldean txiki-handia.

Estazioa	Hilak 22	Hilak 23	Hilak 24	Hilak 25	Hilak 26	Hilak 27	Hilak 28
Iturrieta	-2.8	-3.9	-5.1	-5.3	-6.4	-10.3	-6.2
Herrera	-4.2	-4.4	-5.2	-0.5	-6.5	-10.1	-6.8
Kapildui	-3.7	-4	-5.3	-2.1	-7.2	-10.1	-6.8
Salvatierra	-1.2	-3.6	-2.8	-4.9	-4.6	-10	-4
Oiz	-3.1	-3.8	-4.4	-2.2	-7.3	-9.8	-8.3
Roitegi	-2.1	-3.2	-4.5	-3.9	-6.2	-9.8	-5.5
Pagoeta	-2.4	-3.7	-3.9	-5.3	-5.4	-9.7	-4.8
Trebiño	-3.5	-3.9	-2.5	-5.3	-3.7	-9.6	-4.1
Albaina	-3	-3.7	-2.6	-4.9	-4.1	-9.5	-4
Egino	0.3	-1.6	-2.6	-3.9	-3.3	-9.4	-4.8
Sarria	-1.6	-3.5	-2.7	-4	-4.3	-9.3	-4.9
Antoñana	-3.5	-3.8	-2.5	-4	-4.1	-9.2	-3.9
Zaldiaran	---	-3.4	-3.5	-0.7	-5.8	-8.9	-7.4
Etura	-0.8	-2.3	-2.4	-3.7	-3.1	-8.8	-3.9
Ozaeta	-0.3	-2.1	-2.5	-3.9	-4.7	-8.7	-4
Eskas	-1.2	-2.4	-3.4	-0.3	-4.9	-8.4	-4.9
Ilarduia	0.6	-2.3	-1.5	-4	-3.1	-8.4	-4.4
Orduña	-2.1	-2.6	-4.3	-0.6	-5.4	-8.4	-7.5
Lasarte	2	-0.2	-0.1	0.7	-0.2	-4.9	-2.9



Behobia	2.3	-0.9	-0.4	0	-0.3	-4.3	-3.1
Oiartzun	3	-0.4	-0.7	-0.6	0.6	-3.5	-2
Almike	4.4	3.5	3.7	3.9	2.8	-1.7	-1.7
Punta Galea	6.8	2.1	3	1.8	2	-1.6	-2.6
Deusto	3	1.8	3.2	0.6	1.6	-1.5	-2.9

Osteguna, hilak 22: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala

Ostirala, hilak 23: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean eta Gipuzkoako kostaldean 00etatik 10etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 24: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean eta Gipuzkoako kostaldean 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 25: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala

Astelehena, hilak 26: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean eta Gipuzkoako kostaldean 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 27: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 28an, goizaldean Penintsularen iparraldean elurra mara-mara egin zuen, erabat ezberdinak ziren bi aire-masen arteko elkarrekintzaren ondorioz. Alde batetik Errusia-Siberiatik etorritako aire-masa oso hotza eta lehorra, eta, bestetik, aire subtropikal epela eta oso hezea. Sare osoan termometroa 0 °C-ren azpitik zegoela, Iberiar Penintsularen barnealdetik fronte bero bat iritsi zitzaigun eta prezipitazio iraunkorra egin zuen gutxi gorabehera goiz erdira arte, prezipitazioa elur moduan egin zuen txoko guztietan, elur-kota itsasmailan baitzegoen. Elurra ugaria izan zen, 6-10 cm-ko lodierak pilatu ziren hiriburuetan. Eguerditik aurrera hego-ekialdeko haizea indartu egin zen eta bi aire masak nahastu egin ziren; orduan, pixkanaka prezipitazioa euri izatera pasa zen eta temperatura igotzen hasi zen.

Asteazkena, hilak 28: Alerta Laranja elurragatik 03etatik 12etara ordu lokala. Elur-kota 0-100 m inguruan egongo da. Abisu Horia elurragatik Araban 12etatik 21etara ordu lokala. Elur-kota 700 m inguruan egongo da, eta azken orduetan 1000 m-tik gora igoko da.

- Hilaren 28an Penintsularen mendebaldean zegoen depresio sakon batek hego-ekialdeko haize-boladak eragin zituen, batez ere EAeko ekialdean, bai haizeguneetan bai haizeguneak ez diren tokietan ere (Oiz 100.4 km/h, Ilarduia 99.7 km/h, Salvatierra 79.6 km/h, Alegría 78.1 km/h, Páganos 74.2 km/h).

Asteazkena, hilak 28: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 06etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Gipuzkoan eta Araban 06etatik 20etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.